

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

JASANGARRITASUN, NEKAZARITZA ETA NATURA INGURUNEAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 40/2023 Foru Dekretua, abuztuaren 1ekoa. Onestea Arabako Lurralde Historikoan biohondakinen bilketa eta kudeaketa sustatzeko dirulaguntza lerroaren oinarri arautzaileak

Europako zuzentzauek eta Ekonomia Zirkularrerako Hondakinei eta Lurzoru Kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legeak 25. eta 28. artikuluetan zehaztapenak ezartzen dituzte bi aukerari buruz: alde batetik, biohondakinak bereizita biltzeari buruz eta toki erakundeek beharrezko neurriak hartzeari buruz biohondakinak jatorrian bereizteko eta birziklatzeko, etxeko eta komunitateko konpostajearen bidez, bereziki 1.000 biztanletik beherako toki erakundeetan, eta, bestetik, hondakin horiek bereizita biltzeari, garraiatzeari eta birziklatze instalazio espezifikoeetan tratatzeari buruz, lehentasunez konpostajeko eta digestio anaerobioko instalazioetan edo biak egiten dituztenetan, ziurtatzeko tratamenduan zehar ez direla nahasten dagokion legerian baimendutakoek bestelako hondakin motekin. Bereziki, ezin dira nahastu errefusako hondakin organikoekin.

Ildo beretik, azaroaren 21eko 20/2018 Foru Arauaren bidez, Arabako Batzar Nagusiek onestena eman zioten Arabako Hiri Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko 2017-2030 Planari, zeinean biohondakinak lehentasunezko hondakin nagusi gisa identifikatu baitira.

Aurretik, aurreko legerian eta hondakinen aurreko planean oinarrituta, Foru Gobernu Kontseiluaren irailaren 26ko 51/2017 Foru Dekretuaren bidez, Arabako Lurralde Historikoan materia organikoa bereizita biltzeko dirulaguntza lerro baterako oinarri arautzaileak onetsi ziren. Alabaina, Europako zuzentzarau berriak, Estatuko legeria berria eta autonomia erkidegoko hondakinen planak eta hondakinen foru planak onetsi direla kontuan hartuta, justifikaturik dago oinarri horiek berrikusi eta berridaztea.

Hori dela eta, Arabako Foru Aldundiak, Arabako udalei eta kuadrillei laguntza ematen jarraitu nahi duenez, aurreko oinarrien ordezkoko oinarri hauek idatzi ditu, ildo berari eutsiz eta, besteak beste, toki eremuan biohondakinen kudeaketari ikusgaitasuna emateko, diruz lagundu daitezkeen gastu berriak sartzeko eta prozedurazko irizpide eta baldintza berriak ezartzeko.

Eranskinean jasotzen dira Arabako Lurralde Historikoan biohondakinen bilketa eta kudeaketa sustatzeko dirulaguntza lerroaren oinarri arautzaileak.

Aginduzko txostenak aztertu dira.

Horrenbestez, Jasangarritasun, Nekazaritza eta Natura Ingurunearen Saileko foru diputatuak proposatuta eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Onestea "Arabako Lurralde Historikoan biohondakinen bilketa eta kudeaketa sustatzeko dirulaguntza lerroaren oinarri arautzaileak", zeinak foru dekretu honen eranskinean jasotzen baitira.

Xedapen indargabetzailea. Indargabetzea Foru Gobernu Kontseiluaren irailaren 26ko 51/2017 Foru Dekretua, onartu zituena Arabako lurralde historikoan gai organikoak gaika biltzeko dirulaguntza lerro baterako oinarri arauak.

Azken xedapena. Foru dekretu honen bidez onetsitako oinarri arautzaileak ALHAOn argitaratuko dira eta argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango dute indarra.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko abuztuaren 2a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Jasangarritasun, Nekazaritza eta Natura Ingurunearen Saileko diputatua

AMAIA BARREDO MARTÍN

Ingurumen eta Hirigintza Zuzendaria

NATIVIDAD LÓPEZ DE MUNAIN ALZOLA

ERANSKINA

Arabako Lurralde Historikoan biohondakinen bilketa eta kudeaketa sustatzeko dirulaguntza lerroaren oinarri arautzaileak

1. artikulua. Xedea

Oinarri hauen xedea da Arabako Lurralde Historikoan biohondakinen bilketa eta kudeaketa sustatzeko dirulaguntzak norgehiagoka bidez ematea arautzea.

2. artikulua. Erakunde onuradunak

Erakunde onuradun izan ahalko dira Arabako Lurralde Historikoko 50.000 biztanle baino gutxiagoko udal edo kuadrillak, eta beste pertsona juridiko batzuk, esaterako partzuergoak, haien titularitatea Arabako Lurralde Historikoko udal bati edo gehiagori badagokio eta egoitza soziala Araban badute. Kasu horretan, partaide den Arabako udal bakoitzak 50.000 biztanle baino gutxiago izan behar ditu.

Erakunde publiko eskatzaileek hiri hondakinak bildu eta garraiatzeko eskumena izan behar dute edo, bestela, haien kudeaketa esleituta izan.

2026ko urtarrilaren 1etik aurrera onesten diren dirulaguntza deialdietan, 2025eko abenduaren 31n etxeko hondakinen arloan ordenantza arautzaileak eta zerga ordenantzak onetsita dauzkaten erakundeak soilik izan daitezke onuradun. Ondorio horietarako, betekizun hori ez da betetzat joko zerga arloko ordenantzak soilik onetsi badira.

Deialdi bakoitzeko eskaerak aurkezteko epea amaitzen den egunean, erakunde eskatzaileek Arabako Foru Aldundiak Hondakinen Behatokia garatzeko eskatzen duen dokumentazioa aurkeztuta eduki beharko dute (inbentarioa, hondakinen planaren jarraipena edo beste batzuk).

Diruz lagundu daitezkeen ekintzak hainbat erakundek partekatzeko planteatzen badira, haie-tako bat bakarrik izan daiteke onuradun, eta hark egingo du eskaera eta hartuko du gastua bere gain. Gainera, erabilera partekatuko plana behar bezala justifikatu behar da, eta inplikaturako erakunde bakoitzak artikulua honetan azaldutako baldintzak bete behar ditu.

3. artikulua. Diruz lagundu daitezkeen jarduerak

1. mota: materia organikoa (janari eta sukalde hondakinak) edukiontzien bidez bereizita biltzea eta kudeatzea.

2. mota: materia organikoa (janari eta sukalde hondakinak) konpostajearen bidez biltzea eta kudeatzea.

3. mota: landare hondakinak (landare hondakin biodegradagarriak) biltzea eta tokian-tokian kudeatzea.

4. mota: plangintzako azterlanak, proiektuak eta dokumentuak egitea.

5. mota: tokiko erakundeen ordenantzak etxeko hondakinen arloan egokitzea.

4. artikulua. Diruz lagundu daitezkeen gastuak

Diruz lagundu daitezkeen gastutzat hartuko dira diruz lagundutako jardueraren izaerarekin zalantzarik gabe bat etorri, jarduerarako behar-beharrezkoak izan, eta dagokien deialdian ezarritako epearen barruan eta oinarri arautzaile hauetako baldintzen arabera egiten direnak.

Gastuak honako hauek izan daitezke:

A. Baliabide materialak eta egokitze-obra.

a) Konpost ontziak.

b) Egiturazailea lortzeko birrintzaileak.

c) Biohondakinak biltzeko ibilgailuak.

d) Konpostaje prozesuekin loturiko makineria.

e) Hondakin organikoak bereizita biltzeko edukiontziak.

f) Poltsa konpostagarriak, etxeko ontziak herritarrentzat eta ontzi handiagoak merkataritza eta ostalaritzako establezimenduentzat eta hiriko hondakinekin pareka daitezkeen biohondakinak sortzen dituztenentzat.

g) Giltza edo txartel pertsonalizatuak, hondakin organikoen edota errefusaren edukiontziak ireki ahal izateko.

h) Biohondakinekin loturiko prozesuekin zerikusia duten informatika-tresnak.

i) Eskala txikiko konpostaje instalazioak.

j) Komunitate konpostajerako eremuak egokitzea.

k) Tokian-tokian kudeatzeko inausketa eta lorezaintza hondarrak biltzeko eremuak egokitzea.

l) Dirulaguntzaren xede den jarduerarekin zuzenean lotutako beste edozein bitarteko material edo egokitzapen obra.

B. Biohondakinen bilketa eta kudeaketa ezartzeko, haren berri emateko eta haren jarraipena egiteko prebentzio eta sentsibilizazio kanpainak.

C. Kanpoko laguntza tekniko, planak, azterlanak eta proiektuak egiteko, baita biohondakinen bilketa bereizita eta kudeaketa ezartzeko eta haren jarraipena egiteko moduari buruzko aholkularitza emateko ere.

D. Kanpoko laguntza tekniko, aholkularitza eman, dokumentuak idatzi eta laguntza emateko, udal ordenantzak Ekonomia Zirkularrerako Hondakinei eta Lurzoru Kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legea egokitzeko prozesuan.

E. Biohondakinak kudeatzeko instalazioen ustiapenarekin eta mantentze lanekin loturiko zerbitzu lagungarrien kontratazioa.

Adibide gisa, honako hauek: konpostaje guneak edota inausketa eta lorezaintza hondarrak metatzeko guneak kontserbatzeko eta mantentzeko zerbitzua, laginak hartzeko zerbitzua, analitikak egitekoa, inausketako hondarrak birrintzeko zerbitzua, birrindutakoa garraiatzekoa, biohondakinak garraiatzekoa...

5. artikulua. Alderdi orokorrak

1. Autokonpostajea eta komunitate konpostajea egin ezean, udalak, kuadrillak edo pertsona juridikoak bildutako biohondakinak Biocompost de Álava konpostaje instalaziora garraiatu beharko ditu ezinbestean, edo hondakin organikoak kudeatzeko lurraldean eraikitzen den titulartasun publikoko beste instalazio batera, edo, halakorik ez bada, biohondakinak tratatzeko baimena duen kudeatzaile baten instalazioetara, eta instalazio hartzaileek ezarritako onarpen baldintzak bete beharko ditu.

2. Instalazioek eta bitarteko materialek, hala nola ibilgailuek eta makinek, energia berriztagarriak erabili beharko dituzte lehentasunez.

3. EAEko lurralde eremuan komunitateko konpostaje instalazioen eta jardueren araubide juridikoaren eta baldintza teknikoaren organo eskudunak ezarritako atalaseak eta baldintzak betetzen dituzten komunitateko konpostaje instalazioak soilik lagundu ahal izango dira diruz. Nolanahi ere, une bakoitzean indarrean dagoen araudian xedatutakoa bete behar da.

4. Diruz lagundu daitezkeen baliabide materialak erosketa osokoak, alokairukoak, errentamendukoak edo antzekoak izan daitezke.

5. Ordenantza berriak idaztean, kontuan hartu beharko dira Ekonomia Zirkularrerako Hondakinei eta Lurzoru Kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 11. eta 12. artikulua eta azken xedapenetako lehena eta zortzigarrena, bai eta aplikatu beharreko lege oro ere.

Hondakinei buruzko 7/2022 Lege berriaren arabera, "toki erakundeek, lege hau indarrean jartzen denetik zenbatzen hasita hiru urteko epean, tasa bat ezarri beharko dute, edo, hala bada-gokio, izaera publikoa baina zerga izaerarik ez duen ondare prestazio bat, espezifikoa, berezia eta ez-defizitarioa... benetako kostua islatzen duena..."

7/2022 Legea 2022ko apirilaren 10ean jarri zen indarrean, oro har, zerga neurriei buruzko VII. titulua izan ezik, 2023ko urtarrilaren 1ean jarri baitzen indarrean.

6. Biohondakinen bilketa eta kudeaketaren ezarketa, zabalkunde eta jarraipenerako prebentzio eta sentsibilizazio kanpainetan, kontuan hartuko da hizkuntzaren erabilera ez-sexista eta irudi sexisten bazterketa, genero estereotipoak ekidinez.

7. Diruz lagundutako jarduera gauzatzeko administrazio kontratuak egiten direnean, martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 22. eta 24. artikulua aplikatuko dira (haren bidez, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onetsi zen). Ondorioz, kontratua gauzatzeko baldintzen artean jasoko da esleipendunak, prestazioa egiterakoan, gizonen eta emakumeen berdintasuna sustatzeko neurriak aplikatu beharko dituela, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 3. artikuluan jasotako emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko euskal botere publikoen jarduna gidatu eta bideratu behar duten printzipio orokorrekin bat etorri. Hori guztia kontratuen legeriari lotuta egingo da, eta betiere organo eskudunak ezarri badu neurri hori aplikatu behar zaion kontratazio mota edo ezaugarria dela.

6. artikulua. Eskaerak aurkezteko epea eta lekua

Dirulaguntza eskaerak bitarteko elektronikoaren bidez soilik aurkeztu behar dira, dagokion deialdian ezarritako epearen barruan, Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan, horretarako egokitutako izapide espezifikoen bidez.

Deialdiak urtekoak edo urte anitzekoak izan daitezke. Azken hasu honetan, deialdian emango den gehieneko zenbatekoa adierazi beharko da, guztira, urterokoetan banatuta, emango diren dirulaguntzen ondoriozko gastua egitea aurreikusten den unea kontuan hartuta.

Eskaeretan hurrengo artikuluan agertzen den dokumentazioa jaso beharko da, eta ohar-tarazi ezen, deialdia urte anitzekoa izanez gero, argi eta garbi zehaztu beharko direla urteko bakoitzarekin loturiko kontzeptuak eta zenbatekoak; izan ere, gauzatu beharreko kontzeptuak, haien zenbatekoa eta emandako dirulaguntza urte bakoitzari lotuta egongo dira.

Aurkeztutako eskaerek ez badituzte betetzen adierazitako baldintzak eta prozedurak, Ingurumen Kalitatearen Zerbitzuak interesdunei eskatuko die 10 eguneko epean akatsak zuzendu edo nahitaezko agiriak aurkez ditzatela. Hala egin ezean, eskaera artxibatu egingo da eta eskaeran atzera egin dutela ulertuko da.

Erakunde eskatzaile bakoitzak dirulaguntza eskaera bat izapidetu beharko du 3. artikuluan identifikatutako jarduera mota bakoitzeko (bost jarduera mota daude; beraz, gehienez, bost eskaera).

Salbuespen gisa, erakundeak jarduera bat baino gehiago dituen kontzeptu bat eskatu nahi badu, kontzeptuak duen izaeragatik eta irismenagatik, antzekoena den jarduera motari esleitu beharko dio eta hori egiteko arrazoiak azaldu. Justifikazio hori webguneko formularioan jaso behar da, horretarako berariaz sortutako atal batean.

7. artikulua. Eskaerak: Aurkeztu beharreko dokumentazioa

1. Eskabideek l. eranskinean adierazten den dokumentazioa edukiko dute.

2. Jasangarritasun, Nekazaritza eta Natura Ingurunearen Sailak egokitzen jotzen duen behar beste agiri eskatu ahal izango dizkie erakunde eskatzaileei aurkeztutako eskaera behar bezala ebazteko.

8. artikulua. Diruz lagundu daitekeen aurrekontua eta dirulaguntzaren zenbatekoa

1. Dagokion deialdiak finkatuko ditu oinarri hauen bidez deitutako dirulaguntzetarako gehieneko zenbateko osoa eta urteko zenbatekoa, baita diru zenbateko horiek egotziko zaizkien partidak ere, eta, hala badagokio, zer kopuru gehigarri handitu daitezkeen.

2. Diruz lagungarritzat joko dira, BEZ zergaren zenbatekoak barne, 4. artikuluan aipatzen diren eta indarrean dagoen araudiaren arabera behar bezala justifikatzen diren gastuak, baldin eta epearen barruan gauzatu badira, beharrezkoak badira eta proiektuaren edo jardueraren garapenari eta izaerari lotuta badaude.

Zeharkako zergak, berreskuratu edo konpentsatu ahal badira, ez dira inola ere hartuko diruz lagundu daitekeen gastutzat.

3. Dirulaguntzaren zenbatekoa diruz lagundu daitekeen aurrekontuaren ehuneko 70 izango da gehienez ere.

4. Kuadrilla baten eskaera-multzorako gehieneko aurrekontu zuzkidura ondoko zatiketa honen emaitza izango da: deialdian urte bakoitzerako onetsitako zenbatekoa zati 2. artikuluan aipatzen diren erakundeetakoren batengatik urte bakoitzerako eskaera aurkeztu duen kuadrilla kopurua. Beharrezkoa izanez gero, eskaerak kuadrilla mailan hainbanatuko dira muga horretaraino. Baldintza hori ez da aplikatuko 8.5 apartatua aplikatzen bada.

5. Diruz lagundu daitezkeen laguntzen zenbateko osoa txikiagoa baldin bada aurrekontuan dagoen diru zenbatekoa baino, gerakina proportzionalki banatuko da, eskaera egin duen eta dirulaguntza jasotzeko eskubidea duen erakunde bakoitzak jasotako puntuazioaren arabera; ezin izango da inola ere gainditu 8.3 apartatuan aipatzen den diruz lagundu daitekeen gehieneko portzentajea (ehuneko 70).

Hala eta guztiz ere, aurreko paragrafoan aipatu den gerakinaren banaketan ez dira aplikatuko 8.4 apartatuan jasotako mugak.

6. Foru dekretu honen babesean ematen diren dirulaguntzak bateragarriak dira erakunde eskatzaileak xede horretarako lor dezakeen beste edozeinekin, 13. artikuluan adierazitako mugekin.

7. Dirulaguntza ematen den uneko baldintzak aldatuz gero edo gerora beste dirulaguntza batzuk eskuratuz gero jarduera bera gauzatzeko, emakida ebazpena aldatu ahal izango da, hasiera batean emandako zenbatekoari dagokionez.

8. 3. artikuluan oro har identifikatzen diren diruz lagundu daitezkeen jarduera guztietatik abiatuta, eta jarduera batzuk beste batzuen aurretik lehenesteko, Arabako Foru Aldundiak, deialdi bakoitzean, deialdi horretako jarduera eta gastu guztietatik diruz zein lagundu ahal izango diren hautatu ahal izango du.

9. Erakunde publiko onuraduna Arabako udal batek edo batzuek osatzen badute, Araban erroldatutako biztanleriaren zati proportzionala baino ez da diruz lagunduko, deialdi zehatz bakoitza onesten den egunean Arabako Foru Aldundiaren webgunean argitaratutako izendegian jasotakoaren arabera.

9. artikulua. Prozedura izapidetzea eta balioespen irizpideak

1. Arabako Foru Aldundiaren Jasangarritasun, Nekazaritza eta Natura Ingurunearen Saileko Ingurumen Kalitatearen Zerbitzua da prozedura izapidetzeko organo eskuduna.

2. Honako hauek dira eskaera bakoitzari eman ahal zaion gehieneko aurrekontua esleitzeko aintzat hartuko diren balioespen irizpideak:

IRIZPIDEA	PUNTUAZIOA
Eskatutako jardueraren azalpena eta irismena	30
Proiektuaz lortu nahi diren helburuak	35
Proiektuaren koherentzia orokorra	35
Guztira	100

3. Balioespen irizpideen azalpena:

- Eskatutako jardueraren azalpena eta irismena:

II. eranskinaren (Memoria) edukiaren arabera.

Proiektuaren azalpen laburpenaren edukia eta irismena balioetsiko dira, bai eta diruz lagundu beharreko gastuen deskribapenaren xehetasun eta argitasun maila, denbora kronogramaren zehaztasuna eta jardueraren garapenean esku hartzen duten eragileek eskainitako bermea ere, eta, oro har, proiektua hobeto ezagutzen laguntzen duen informazio guztia.

- Proiektuaz lortu nahi diren helburuak:

Lortu beharreko helburuak balioetsiko dira, II. eranskineko (Memoria) "Eskatutako proiektua ezartzearekin lortu nahi diren helburuak" ataleko informazioaren arabera, eta kontuan hartuko dira espero diren onurak eta proposatutako jardueraren bidez horiek betetzeko bideragarritasuna zenbaterainokoa den.

- Proiektuaren koherentzia orokorra:

Hondakinak kudeatzeko egungo politiketan eta jarduera kokatzen den plangintza esparruan jarduera nola txertatzen den balioetsiko da, bai eta proposamenaren sendotasuna ere, aurkeztutako justifikazioetan oinarrituta, bereizi ahal izateko jarduera puntualak eta isolatuak diren edo koordinatutakoak eta plangintza batean behar bezala txertatuak.

Eskatutako jarduerak aztertuko dira, eta balioetsiko da ea bat datozen proiektuak lortu nahi dituen helburuei egiten dieten ekarpen egiaztagatik erreferentzia izan daitezkeen norberaren edo hirugarrenen beste jarduera batzuekin, bai eta Arabako Hiri Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Planarekin (2017-2030) eta bertan biohondakinatarako programatutako ekintzekin ere.

Ezetsi egingo dira gutxienez 40 puntu lortzen ez dituzten eskaerak.

Aurkezten diren eskaerak balioetsi ondoren, lortutako puntuazioaren arabera hurrenkeran sailkatuko dira, eta dirulaguntzak hurrenkera horretan emango dira, 8. artikuluan jasotako irizpideen arabera, harik eta guztizko aurrekontu zuzkidura edo deialdian jarduera mota bakoitzari esleitutako aurrekontu zuzkidura amaitu arte.

Puntuazioan berdinketa gertatuz gero, proposamenak honako lehentasun irizpide hauen arabera lehenetsiko dira, zeinak hurrenez hurren aplikatuko baitira:

1. Laguntza eskatzen den urtearen aurreko ekitaldian onuradun izan ez ziren erakundeak.
2. Inbertsio handieneko eskaerak.

10. artikulua. Ebazpena

1. Balioespen batzorde batek aztertuko ditu eskaerak. Honako hauek osatuko dute batzordea: Natura Ingurunearen zuzendaria lehendakaria izango da; Ingurumen Kalitatearen Zerbitzuaren burua bokala izango da; Ingurumen Prebentzioaren Atalaren burua bokala izango da, eta zuzendaritzari atxikitako funtzionario bat idazkaria izango da.

2. Balioespen batzordeak, aurkeztutako eskaerak deialdian ezarritako irizpideen arabera erkatu ondoren, ebaluazioaren emaitza jasoko duen txostena egingo du.

3. Eskaerak ebazteko epealdia, gehienez ere, sei hilekoa izango da, eskaerak aurkezteko epea amaitzen denetik. Ebazpena postaz jakinaraziko zaie interesdunei ondoko hamar egun baliodu-netan. Esanbidezko ebazpenik ematen ez bada, dirulaguntza ezetsi egin dela esan nahiko du. Emakida ebazpenean dirulaguntza zer erakunde eskatzaileri eman zaien zehaztu behar da, eta berariaz adierazi behar da gainerako eskaerak ezetsi direla.

4. Ebazpenean, positiboa izanez gero, dirulaguntzaren zenbatekoa adieraziko da, bai eta ordaintzeko modua, ukitutako programa edo jarduera, aurkeztu beharreko agiriak eta laguntza emateko baldintzak ere.

5. Dirulaguntza ematen edo ukatzen duen ebazpenaren berri emango zaie erakunde eskatzaileei, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak xedatzen dituen moduetan.

6. Hasieran kontsignatutako funtsak ezin badira aplikatu, adibidez hasieran emandako dirulaguntzei uko egin zaielako, Arabako Foru Aldundiak kontsignazioa areagotu ahalko du, harik eta aurrekontuko zuzkidura agortu arte, aurkeztutako eta onartutako eskaeren balioespeneko lehentasun ordenaren arabera.

11. artikulua. Emandako dirulaguntzen ordainketa eta justifikazioa

Dirulaguntzaren xede den jarduera gauzatu dela justifikatu ondoren ordainduko da dirulaguntza, ordainketa bakarrean, dirulaguntzaren helburua bete eta justifikatutakoan, edo zatikako ordainketetan, erakundeak dirulaguntzaren xede den jarduera amaitu duela justifikatu ahala.

Ordainketa eskaerak aurkezteko eta justifikatzeko epeak deialdi bakoitzean adierazitakoak izango dira, eta bitarteko elektronikoen bidez soilik aurkeztu ahal izango dira, Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan, horretarako gaitutako berariazko izapidearen bidez.

Ordainketa egiteko eskaerak ondorengo zerrendan zehazten den informazio guztia jaso behar du. Zerrenda horretan eskaerarekin batera aurkeztu behar diren egiaztagiria ere zehazten dira:

1. Idazkariak egindako ziurtagiria, adierazten duena dirulaguntzaren xede den gastua egin dela.
2. Instalazio eta ekipamenduei dagokienez, idazkariak edo fede-emaike publikoak egindako ziurtagiria, bermatzen duena diruz lagundutako xedeari gutxienez lau urtez eutsiko zaiola.
3. Idazkariak egindako ziurtagiria, adierazten duena gastua gauzatzeko egin diren kontratazioak Administrazio Publikoen Kontratuen Legeak ezarritakoa betez egin direla.
4. Idazkariak sinatutako erantzukizunpeko adierazpena, egiaztatzen duena aurkeztutako dokumentazioa jatorrizkoarekin bat datorrela.
5. Egindako jarduera azaltzen duen memoria, eskaeran aurkeztu den memoriaren aurkibidea eredutzat hartuta (ikus II. eranskina).

6. Komunitate konpostajerako instalazioen kasuan, idazkariak edo fede-emaile publikoak egindako ziurtagiria, egiaztatzen duena betetzen dituztela EAEko lurralde eremuan komunitate konpostajerako instalazioen eta jardueren araubide juridikoaren eta baldintza teknikoaren organo eskudunak ezarritako atalaseak eta baldintzak. Eta, nolana ere, une bakoitzean indarrean dauden araudian xedatutakoa bete behar da.

7. Hala badagokio, obra amaierako ziurtagiriaren kopia onetsia.

8. Eragindako gastuen zerrenda banakatu, erakunde hartzekoduna eta agiria, zenbatekoa, jaulkipen data eta ordainketa data adierazita. Memoria ekonomikoan, gastuen zerrenda banakatu eta gastuen laburpena jaso behar da, V. eranskineko taularen arabera.

9. Fakturak edo merkataritzako trafiko juridikoaren froga balio baliokidea duten agiriak, eta ordainketak egin izanaren egiaztagirak.

10. Salbuespenez, eskuratutako dirulaguntzak justifikatzeko aurkeztutako gastuen ordainketa egiaztatu ezean, ordainketa justifikatu beharreko aurrerakin gisa egingo da, eta dirulaguntza justifikatzen duten gastuak ordaindu izanaren frogagiriak hilabeteko epean aurkeztu beharko dira, dirulaguntzaren zenbatekoa jasotzen den egunetik zenbatzen hasita.

11. Diruz lagundutako jarduera finantzatzeko erabili diren beste sarrera edo dirulaguntza batzuk, zenbatekoa, jatorria, eta eskatutako jardueraren zein kontzeptu osatzen duen edo zein kontzepturi gainjartzen zaion adierazita. Frogatzea ez dagoela deialdi honetan eskatutako helburuen gainfinantzaketarik, helburu bererako dirulaguntza bat baino gehiago jasotzeagatik. Idazkariak edo fede-emaile publikoak egindako ziurtagiria, dirulaguntza horiek lortu izana eta haien ebazpena egiaztatzen duena.

Emandako dirulaguntzei dagozkien gastu guztiak justifikatzen ez badira, zenbatekoa gutxitu egingo da, justifikatu gabeko gastuaren proportzioan.

12. artikulua. Erakunde onuradunen betebeharrak

1. Diruz lagundutako jarduerak gauzatzea. Diruz lagundutako jarduerak deialdi bakoitzean ezarritako data baino lehen egin beharko dituzte erakundeek.

2. Diruz lagundutako jardueren publizitatea. Erakunde onuradunak espresuki aipatu beharko du Arabako Foru Aldundiaren Jasangarritasun, Nekazarita eta Natura Ingurunearen Sailak emandako dirulaguntza.

Jarduera guztietan, izaera edozein dela ere (edukiontzia, ontziak, kanpainak, eta abar) adierazi beharko da Arabako Foru Aldundiak diruz lagundutako jarduera dela.

Kanpainetan, generoaren ikuspegitik hizkuntza zuzen erabiltzen dela bermatuko da, eta informazioa emakume eta gizonei parekidetasunez iristeko mezu eta kanal egokiak erabiliko dira.

3. Diruz lagundutako jardueren kontratazioa. Jarduera kanpoko kontratazio baten bitartez gauzatzen bada, dirulaguntzaren erakunde onuradunak dirulaguntzaren xede den jarduera kontratatzeke egin beharreko izapideak egin beharko ditu fase guztietan, eta dena delako jarduera behar bezala eta osorik gauzatzeko beharrezkoak diren izapide eta baimen guztiak bideratu beharko ditu; horiek guztiak izapidetuko ditu lanak hasten diren unetik behin betiko hartzen dituen arte. Erakunde onuradunak diruz lagundutako jardueraren zenbatekoaren ehuneko ehun azpikontratatu ahal izango du.

Lizitaziotik eratorritako betebeharren erantzule izango dira, esklusiboki, jardueraren adjudikaziodunen aurrean.

4. Gastua sektore publikoko kontratazio araudian ezarritakoaren arabera egin behar da.

5. Dirulaguntzaren xedea instalazioak edo ekipamendua badira, erakunde onuradunak bermatu beharko du instalazio edo ekipamendu horiei eutsi eta ustiatu egingo dituela gutxienez lau urtez.

13. artikulua. Dirulaguntzen bateraezintasuna

Deialdi honen bitartez emandako dirulaguntzak bateraezinak dira Arabako Foru Aldundiaren beste sail batzuetatik edo horiei atxikitako erakundeetatik jasotako beste edozein laguntza edo dirulaguntzarekin, salbu eta bi alderdiek batera berariaz baimena eman badute.

Deialdi honetan onar daiteke beste administrazio nahiz erakunde publiko edo pribatu batzuek (estatukoak nahiz nazioartekoak) emandako beste dirulaguntza batzuk edo beste diru sarrera batzuk jasotzea, betiere haien kopurua ez bada, bakarka nahiz beste dirulaguntza batzuekin batera, diruz laguntzen den jardueraren kostua baino handiagoa.

14. artikulua. Ez-betetzeak eta gehiegizko finantzaketa

1. Erakunde onuradunek betebeharrak ez-betetzea.

Aurreko artikuluetan ezarritako baldintzak betetzen ez badira, emandako dirulaguntza erre-bokatu egingo da, ez-betetzearen zioz, eta hala badagokio, itzuli egin beharko da.

2. Gehiegizko finantzaketa, eta beste dirulaguntza eta beste diru sarrera batzuk izatea.

Beste laguntza batzuk jaso direlako jardueraren kostuaren gehiegizko finantzaketa gertatuko balitz, onuradunak gehiegizko zatia itzuli beharko du, bai eta berandutza interesak ordaindu ere.

15. artikulua. Egiatzapena

Jasangarritasun, Nekazaritza eta Natura Ingurunearen Saileko foru diputatuak aginduta, deialdi hau garatzeko egokitzat jotzen diren ebazpenak emango dira, dirulaguntza izapidetzen duen unitate organikoaren ekimenez, eta behar direnak egiteko ahalmena izango du onuradunek aurkeztutako datuak egiazkoak direla eta oinarri hauetan araututakoa betetzen dela galdegiteko eta egiaztatzeko. Horretarako, onuradunek konpromisoa hartzen dute gauzatzen dituzten jarduerekin zerikusia duten datuak eta agiriak emateko, Jasangarritasun, Nekazaritza eta Natura Ingurunearen Sailak eskatzen badizkie. Era berean, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak, Kontuen Epaitegiak edo eskumena duten beste erakunde batzuek eskatzen dieten informazio guztia ere eman beharko dute.

Horrez gainera, Arabako Foru Aldundiak beharrezkotzat jotzen dituen ikuskapenak egin ahal izango ditu diruz lagundutako ekintzei buruz, eta eskaera berriei buruz ikertu eta informazio osagarria eskatu ahal izango du azterketa fasean.

Erakundeek dagozkien espedienteetarako sarbidea ahalbidetuko dute eta egin beharreko bisita teknikoetara lagunduko diete Arabako Foru Aldundiko langileei.

16. artikulua. Erantzukizunak

Erakunde onuradunek beren gain hartzen dituzte diruz lagundutako jardueraren ondoriozko erantzukizunak, eta orobat indarrean dagoen legeriak galdegiten dituen baimenak eskatzeko ardura.

17. artikulua. Interpretazioa

Oinarri hauek interpretatzean zalantzarik sortzen bada, Arabako Foru Aldundiaren Jasangarritasun, Nekazaritza eta Natura Ingurunearen Sailak ebatziko ditu.

18. artikulua. Aplikatu beharreko araudia

Dekretu honetan jasotako dirulaguntzak dekretuan bertan eta eskabideen ebazpenetan ezarritakoaren arabera arautuko dira.

Oinarri hauetan xedatuta ez dagoen guztian, xedapen hauei jarraituko zaie: 11/2016 Foru Araua, urriaren 19koa, Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzena; 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzena; 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren arautegia onesten duena; 53/1992 Foru Araua, abenduaren 18koa, Arabako Lurralde Historikoko Ekonomia eta Aurrekontu Araubidearena; aurrekontu antolamenduari buruzko indarreko foru araua; 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena, eta aplikagarriak diren gainerako arauak.

19. artikulua. Indarrean jartzea

Oinarri hauek ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean sartuko dira indarrean.

ANEXO I / I. ERANSKINA

Webeko formularioan honako datu hauek adierazi behar dira:

- Erakunde eskatzailearen datuak.
- Harremanetarako pertsonaren datuak.
- Eskatutako jarduketaren datuak: Mota, ezaugarriak eta aurrekontua.
- Erakundearen legezko ordezkariaren datuak eta sinadura.

Gainera, ondoko dokumentu hauek erantsi behar dira:

Nahitaezko dokumentuak (markatu erantsi dena).

Gaikako bilketaren ardura beste erakunde baten esku utzi bada, baina dirulaguntza udal batek eskatzen badu, bilketaren ardura hartu duen erakundearen lehendakariaren ziurtagiria aurkeztu beharko da. Ziurtagiri horretan, eskuordetza jaso behar da berariaz, eta adierazi behar da udalak eskatutako dirulaguntza onesten dela eskuordetutako erakundeak gauzatzen duen hondakin politikarekin bat egiten duelako.

Gauzatu beharreko jarduerari buruzko proiektua. Proiektu horrek, gutxienez, honako agiri hauek izan behar ditu:

- Proiektuaren memoria (II. eranskineko ereduaren arabera).
- Aurrekontuaren banakapena (III. eranskinaren arabera).

– Erakunde batek baino gehiagok diruz lagungarriak diren erabilerak edo helburuak partekatzen badituzte, helburu horren erabilera partekatua justifikazioa eta plangintza teknikoa eta aurrekontukoa.

Idazkariak edo fede-emaile publikoak egindako ziurtagiria, egiaztatzen duena erakundeko organo eskudunak eskaera eta gastuaren zati baten finantzaketa baimenduz hartutako erabakia.

Erakundeko alkateak edo buruak egindako ziurtagiria, egiaztatzen duena beste erakunde batzuetatik helburu bererako laguntza edo dirulaguntza publikorik eskatu eta eskuratu den, erakunde emailea eta jasotako zenbatekoa zehaztuz (IV. eranskinaren arabera). Dirulaguntza emateko ebazpenik izanez gero, kopia aurkeztu beharko da.

Lursailak, orubeak edo eraikinak okupatzen edo erabiltzen badira, haien erabilgarri dardela eta udal plangintzaren araubidearekin bat datorrela justifikatzea, idazkariaren edo fede-emaile publikoaren ziurtagiri bat dela medio, kuadrillako buruak, udaleko alkateak eta/edo toki erakundeko buruak edo, hala badagokio, partzuergoko buruak oniritzia emanda.

Erakundeak etxeko hondakinei buruz dituen ordenantza arautzaile eta fiskalen identifikazioa, haien onspena argitaratu den ALHAOren bidez egiaztatuta. Onetsita ez badaude, adierazi zer egoeratan dagoen haien izapidetzea.

Aurkeztutako dokumentazioa jatorrizkoarekin bat datorrelako erantzukizunpeko adierazpena, idazkariak sinatua.

II. ERANSKINA. Memoria

- Diruz laguntzeko ekintzaren deskribapena.

1. Biohondakinen bilketaren eta kudeaketaren egungo egoera, jarduketaren ingurunean.

Bilketa dagoeneko ezarrita egonez gero: gaur egun biltzen diren tonak, zerbitzua ematen zaien biztanleen kopurua, bilketa egiten den auzoak edo zonak, etxebizitza kopurua, hirigintza tipologia eta abar.

2. Diruz lagunduko den proiektuaren deskribapen laburra.

3. Hondakinen inguruko ordenantzekin loturiko eskaerak direnean, identifikatu eta deskribatu bai indarrean dauden ordenantzak bai proposatutako ordenantza berriak: helburua, edukia, arau esparrua, aurrekoarekiko desberdintasunak eta hura hobeto ezagutzeko behar den informazio gehigarri guztia.

- Proiektuaren garapenean zerikusia duten eragileak.

– Kuadrillen kasuan, zehaztu zerikusia duten udalerrriak.

– Azpikontratatu behar diren kanpoko erakunde hornitzaileen deskribapena, haietako bakoitzak egin behar duen papera zehaztuz.

– Ekintzaren garapenari zuzenean atxikitako langileak.

- Ezarketaren kronograma.

Diruz laguntzeko ekintza guztietarako, azaldu hasiera- eta amaiera-datak, bai eta ekintza osoaren garapenean lortu beharreko tarteko zedarrak ere.

Urte anitzeko deialdietan, kronograma honek ekitaldi bakoitzean gauzatu beharreko konzeptuen banakapena jasoko du.

- Eskatutako gastuen deskribapena.

1. Baliabide materialak eta egokitze-obrak.

1.1. Konpost ontziak.⁽¹⁾

– Ezaugarri teknikoen deskribapena eta egokitasunaren justifikazioa.

– Kopurua.

– Tipologia.

– Sareak edo antzekoak, karraskariak sartzea galarazteko.

1.2. Egituratzaila lortzeko birrintzailak.⁽²⁾

– Ezaugarri teknikoen deskribapena eta egokitasunaren justifikazioa.

– Kopurua.

– Tipologia.

1.3. Biohondakinak biltzeko ibilgailuak

– Ezaugarri teknikoen deskribapena eta egokitasunaren justifikazioa.

⁽¹⁾ Enpresa hornitzailearen informazio teknikoa edukiz gero, eranskinean gehitu

⁽²⁾ Enpresa hornitzailearen informazio teknikoa edukiz gero, eranskinean gehitu

1.4. Konpostaje prozesuekin loturiko makineria.⁽³⁾

- Ezaugarri teknikoen deskribapena eta egokitasunaren justifikazioa.
- Tipologia.

1.5. Edukiontzia jartzea.⁽⁴⁾

- Ezaugarri teknikoen deskribapena eta egokitasunaren justifikazioa.
- Udalerrian edo kuadrillan hondakin organikoak biltzeko dagoen edukiontzi kopurua (daudenak eta eskatu direnak batuta).
- Udalerrian edo kuadrillan gainerako hondakinen zatia biltzeko dagoen edukiontzi kopurua.
- Hondakin organikoen zatia biltzeko edukiontziak (daudenak gehi eskatutakoak) / gainerako hondakinen zatia ratioa.
- Udalerrian zati organikoko edukiontzietan eskuragarri dagoen bolumen osoa (daudenak gehi eskatutakoak) / gainerako zatiko edukiontziak ratioa.
- Edukiontzien edo bilketa puntuen kokapena mapan (eskatutakoak edota daudenak), eta mapa hori gainerako zatiko edukiontzien maparekin gainjartzea.

1.6. Poltsa konpostagarriak, etxeko ontziak herritarrentzat, ontzi handiagoak merkataritza eta ostalaritzako establezimendu eta hiriko hondakinekin pareka daitezkeen hondakin organikoak sortzen dituztenentzat eta irekitzeko giltza edo txartel pertsonalizatuak ontziak erabili ahal izateko⁽⁵⁾. Laguntzak eskatzen diren itemetako bakoitzeko (poltsak, kuboak, giltzak, irekitze-txartelak eta abar) unitate kopurua adieraztea, baita ezaugarri teknikoen deskribapena eta beraien egokitasunaren justifikazioa ere.

1.7. Giltza edo txartel pertsonalizatuak, hondakin organikoen edota errefusaren edukiontziak ireki ahal izateko.

Adierazi item bakoitzaren ale kopurua, bai eta ezaugarri teknikoen deskribapena eta egokitasunaren justifikazioa.

1.8. Informatika-tresnak: Ezaugarri teknikoen deskribapena eta egokitasunaren justifikazioa.⁽⁶⁾

1.9. Eskala txikiko konpostaje instalazioak.

- Helburua.
- Kokalekua, azalera-beharrak, ezarketa.
- Prozesuaren eta beharrezko ekipo material eta pertsonalen deskribapena.
- Inbertsioaren eta ustiapenaren kostua.
- Lortutako materialaren ahalezko erabilerak.
- Ingurumen inpaktua.

⁽³⁾ Enpresa hornitzailearen informazio teknikoa edukiz gero, eranskinean gehitu

⁽⁴⁾ Enpresa hornitzailearen informazio teknikoa edukiz gero, eranskinean gehitu

⁽⁵⁾ Enpresa hornitzailearen informazio teknikoa edukiz gero, eranskinean gehitu

⁽⁶⁾ Enpresa hornitzailearen informazio teknikoa edukiz gero, eranskinean gehitu

1.10. Komunitate konpostajerako eremuak egokitzea⁽⁷⁾:

- Obra zibilaren deskribapena.
- Konpostajea egiteko behar-beharrezkoak diren makinen zerrenda eta deskribapena.
- Konpost ontziak eta hondakinak instalazioak biltzeko ontzien zerrenda eta deskribapena.

1.11. Tokian-tokian kudeatzeko inausketa eta lorezaintza hondarrak biltzeko eremuak egokitzea.

- Obra zibilaren deskribapena.
- Loturiko bitarteko materialak identifikatzea.

1.12. Dirulaguntzaren xedearekin loturiko beste edozein bitarteko material edo egokitze-obra, eta haren deskribapena.

2. Sentsibilizazio kanpainak⁽⁸⁾.

Egin beharreko jarduketan eta haien helburuen deskribapena, martxan jarri beharreko ekintza bakoitzaren tipologia eta bitartekoak bereiziz. Zehazki, publizitate materialen diseinuari eta argitalpenari, proiektua hedatzeko bitartekoei eta abarri buruzkoak. Betiere, kontuan hartu behar dira hizkuntzaren erabilera ez-sexista eta irudi sexisten bazterketa, genero estereotipoak ekidinez.

3. Kanpoko laguntza teknikoak⁽⁹⁾.

Kontratatu beharreko enpresak egingo dituen aholkularitza-lanak deskribatuko dira, argi eta garbi adieraziz kontratazio horren helburua eta espero diren emaitzak.

4. Zerbitzu lagungarriak:

Kontratatu beharreko zerbitzuak deskribatuko dira, argi eta garbi adieraziz kontratazio horren helburua, behararen justifikazioa eta espero diren emaitzak.

5. Erakunde eskatzaileak proposamena hobeto zehazteko interesgarritzat jotzen duen informazio gehigarria.

- Eskatutako ekintza garatuz lortu nahi diren helburuak

1. Helburu kualitatiboak. Adibide gisa, honako hauek aipatzen dira:

- Herritarrak asebetetzea.
- Emandako zerbitzuaren kalitatea hobetzea.
- Erakunde eskatzailearen irudia hobetzea.
- Zerbitzua ematearekin loturiko helburu sozialak, esate baterako, enplegu soziala sortzea.
- Ingurumen alorreko hobekuntzak.
- Hondakinen kudeaketaren kostuak eguneratzea.

⁽⁷⁾ Enpresa hornitzailearen informazio teknikoa edukiz gero, eranskinean gehitu

⁽⁸⁾ Enpresa hornitzailearen informazio teknikoa edukiz gero, eranskinean gehitu

⁽⁹⁾ Enpresa hornitzailearen informazio teknikoa edukiz gero, eranskinean gehitu

2. Helburu kuantitatiboak. Adibide gisa, honako hauek aipatzen dira:

- Bildu edo jatorrian kudeatu beharreko hondakin organikoen tona kopurua, sortzen diren hondakin guztien aldean.
- Zerbitzua ematen zaien biztanleen kopurua, kopuru osoaren aldean.
- Zerbitzua ematen zaien etxebizitzaren kopurua, kopuru osoaren aldean.
- Zerbitzua ematen zaion biztanleriaren eta proposatutako inbertsioaren arteko ratioa.
- Erreferentziako plangintza-dokumentua.
 - Toki mailako erreferentziako plangintza-dokumentua identifikatzea.
 - Plangintza horretan proposatutako ekintzak identifikatzea, baita horien programazioa eta gauzatze-maila ere.
 - Proposatutako ekintzen denbora-jarraipena, ezartzen direnetik deialdiaren data arte.
 - Arabako 2017-2030eko hiri hondakinen prebentzio eta kudeaketa planaren helburuak lortzeko ekarpena.

III. ERANSKINA

Aurrekontuaren banakapena (eurotan) urteko

DIRULAGUNTZAREN KONTZEPTUA		UNITATEKO PREZIO ZENBATETSIA ⁽¹⁰⁾	ESKATUTAKO UNITATEAK	ZENBATEKO OSOA, BEZA APARTE	ZENBATEKO OSOA, BEZA BARNE
Baliabide materialak eta egokitzapen obrak	Konpost ontziak				
	Egituratzaila lortzeko birrintzailak				
	Biohondakinak biltzeko ibilgailua				
	Konpostajearekin loturiko makineria				
	Edukiontzia				
	Poltsa konpostagarriak				
	Etxeko ontziak				
	Sortzaila handien ontziak				
	Giltza edo irekitze-txartel pertsonalizatuak				
	Informatika-tresnak				
	Eskala txikiko konpostaje instalazioak				
	Komunitate konpostajea egokitzea				
	Inausketa eta lorezaintzako hondarrak biltzeko eremuak egokitzea				
	Dirulaguntzaren xedearekin zuzenean loturiko beste edozein bitarteko material (adierazi zein)				
Sentsibilizazio kanpainak	Publizitateko materialak diseinatzea eta argitaratzea				
	Proiektua zabaltzeko bitartekoak				
	Dirulaguntzaren xedearekin loturiko beste edozein bitarteko (adierazi zein)				
Kanpoko laguntza teknikoak	Planak, azterlanak eta proiektuak egiteko, bai eta ezarketa- eta jarraipen-prozesuan aholku emateko ere				
	Udal ordenantzak egokitzearekin zerkusua duten azterlanak eta dokumentuak idazteko eta aholku emateko				
Zerbitzu lagungarriak	Instalazioak ustiatzeko eta mantentzeko kanpoko baliabideak				
Guztira					

⁽¹⁰⁾ BEZa aparte

IV. ERANSKINA / ANEXO IV

Beste laguntza edo dirulaguntza publikoei buruzko adierazpena

Declaracion de otras ayudas o subvenciones públicas

Agiri honen bidez, behean sinatzen duenak (izena: NAN zk.:) honako hau adierazten du: erakunde eskatzaileak	Mediante este documento la persona abajo firmante con DNI declara que el/la entidad solicitante
Agiri honen bidez, behean sinatzen duenak (izena: NAN zk.:) honako hau adierazten du: erakunde eskatzaileak	Mediante este documento la persona abajo firmante con DNI declara que el/la entidad solicitante
<input type="checkbox"/> ez duela jaso dirulaguntzarik edo laguntza ekonomikorik foru dekretu honen babespean haren eskaeraren xedea den proiekturako.	<input type="checkbox"/> No ha solicitado subvención o ayuda económica para el proyecto que es el objeto de su solicitud al amparo del presente Decreto Foral.
<input type="checkbox"/> eskatu duela dirulaguntza edo laguntza ekonomikoa proiektu horretarako, edo hori barne hartzen duen proiektu zabalago baterako. Dirulaguntza eskaera honako honi egin zaio: <input type="checkbox"/> Eusko Jaurlaritza. Adierazi dirulaguntzari buruzko araudia, dagokion aldizkari ofizialean argitaratu zen eguna eta, kasua bada, dirulaguntza ematen duen ebazpena. <input type="checkbox"/> Beste batzuk. Adierazi dirulaguntzari buruzko araudia eta dagokion aldizkari ofizialean argitaratu zen eguna.	<input type="checkbox"/> Sí ha solicitado subvención o ayuda económica para dicho proyecto, u otro proyecto más amplio que engloba el anterior. La solicitud de subvención ha sido dirigida a: <input type="checkbox"/> Gobierno Vasco. Indicar normativa reguladora de la subvención, fecha de la publicación en el Boletín Oficial que corresponda y, en su caso, resolución por la que se otorga la subvención. <input type="checkbox"/> Otros. Indicar la normativa reguladora de dicha subvención y fecha de publicación en el Boletín Oficial.
Eskatutako dirulaguntza egoera honetan aurkitzen da: <input type="checkbox"/> Izapidetzen. <input type="checkbox"/> Emanda. Adierazi emandako zenbatekoa: <input type="checkbox"/> Ordainduta. Adierazi zenbat ordaindu den:	La subvención solicitada se encuentra en la siguiente situación: <input type="checkbox"/> En trámite. <input type="checkbox"/> Concedida. Indicar el importe concedido. <input type="checkbox"/> Abonada. Indicar el importe abonado.
Oharrak:	Observaciones:

Alkate-lehendakariaren sinadura/zigilua / Firma / sello de la alcaldía/presidencia.

V. ERANSKINA

Justifikazio kontua (eurotan) urteko

DIRULAGUNTZAREN KONTZEPTUA	UNITATEKO PREZIOA ⁽¹¹⁾		UNITATEAK		ZENBATEKOA, GUZTIRA ⁽¹²⁾		FAKTURAK			
	ZENBATETSIA	AZKENEKOA	ESKATUAK	ESKURATUAK	ZENBATETSIA	AZKENEKOA	ERAKUNDE HORNITZAILEA	KOPURUA	JAILKITZE DATA	ORDAINKETA DATA (HALA BADAGOKIO)
Baliabide materialak eta egokitzapen obrak	Konpost ontziak									
	Birrintzaileak, egituratzaileak fabrikatzeko									
	Biohondakinak biltzeko ibilgailua									
	Konpostajearekin loturiko makineria									
	Edukiontzia									
	Poltsa konpostagarriak									
	Etxeko ontziak									
	Sortzaile handien ontziak									
	Giltza edo irekitze-bxartel pertsonalatuak									
	Informatika-tresnak									
	Eskala txikiko konpostaje instalazioak									
	Komunitate konpostajerako eremuak egokitzea									
	Inausketa eta lorezaintzako hondarrak biltzeko eremuak egokitzea									
Dirulaguntzaren xedearekin zuzenean loturiko beste edozein bitarteko material										
Sentsibilizazio kanpainak	Publizitate materialak diseinatzea eta argitaratzea									
	Proiektua zabalitzeko bitartekoak									
	Dirulaguntzaren xedearekin zuzenean loturiko beste edozein bitarteko material. Adierazi zein									
	Dirulaguntzaren xedearekin zuzenean loturiko beste edozein bitarteko material. Adierazi zein									

⁽¹⁰⁾ BEZa barne

⁽¹⁰⁾ BEZa barne

DIRULAGUNTZAREN KONTZEPTUA		UNITATEKO PREZIOA ⁽¹¹⁾		UNITATEAK		ZENBATEKOA, GUZTIRA ⁽¹²⁾		FAKTURAK			
		ZENBATETSIA	AZKENEKOA	ESKATUAK	ESKURATUAK	ZENBATETSIA	AZKENEKOA	ERAKUNDE HORNITZAILEA	KOPURUA	JAILKITZE DATA	ORDAINKETA DATA (HALA BADAGOKIO)
Kanpoko laguntza teknikoak	Planak, azterlanak eta proiektuak egiteko, bai eta ezarketa- eta jarraipen-prozesuan aholku emateko ere										
	Udal ordenantzak egokitzearekin zerikusia duten azterlanak eta dokumentuak idazteko eta aholku emateko										
Zerbitzu lagungarriak	Instalazioak ustiatzeko eta mantentzeko kanpoko baliabideak										
GUZTIRA											